

**Antzezlana** · 'Kukue dator!!!' antzezlana, Astran. O.C.



**4 minutu** · Lau minutu, gogoetarako. ASIER ALKORTA



**Labauria** · Jose Maria Labauria omendu du EAJk. EAJ

76 urte bete dira Gernika-Lumo bonbardatu zutenetik; dena den, herriak ez du oraindik ahaztu sarraski hura, eta gertaera gogoratzeko hainbat ekitaldi egin dituzte.

# Belaunaldi barrien garaia

**Erredakzioa**

Aita-amengandik seme-alabetara; amona-aitonengandik lobetara. Hala izan dute egungo herritarrek duela 76 urte Gernika-Lumon gertatutakoaren barri. Sarraskitik bizirik irtendakoek belaunaldiz belaunaldi kontatu izan dute zer ikusi zuten, zer entzun zuten, nun izkutatu ziren, zenbat sufritu zuten...

76 urte igaro diren arren, 1937ko apirilaren 26an gertatutakoa ez dute ahaztu oraindik gernikarrek. Hala adierazi dute, beste behin be, urteurrenean ekitaldiak antolatuta. Horien bitartez, apirilaren 26 hartan hil zirenak izan dituzte gogoan udalak, elkarteek, museoek, taldeek zein norbanakoek.

Barikua bera izan zen oroitzapen horiek gogora ekartzeko egun handiena. Goizean hasi eta gauera bitarte, Gernika-Lumok beste irudi bat hartu zuen, hildakoen omenezko loreak eta berbak baitziren nagusi. Dena den, egun bizirik dirautenak be goraipatu zituzten egun horretan: bai 1937ko bonbardaketatik bizirik ateratakoak eta baita gaur egun bakearen alde borrokatzen dutenak be.

## George Steer gogoan

Besteak beste, apirilaren 26 hartan Gernika-Lumon gertatutakoa lau haizetara zabaldu zuen kazetaria omendu zuen herriak: George Steer. Omenaldia hunkigarria izan zen eta bere semea be bertan egon zen. Bere aita omentzeko batutako guztien aurrean, Euskal Herria berpizteko gogor lan egin duten andreen, gizonen eta umeen lana goraipatu zuen George L. Steerrek. Eta, batez be, Jose de Ganboa eta Joseba Agirre lehendakari ohiaren semea izan zituen gogoan: «Eman didaten laguntasunagatik, adiskidetzagatik eta inteligentzia, gizatasun, eskuzabaltasun, sendotasun irakaspenagatik».

Gernikazarra historia taldeko presidente Alberto Iturriartek, barriz, George Steerrek egin zuen lanaren garrantzia gogorarazi zuen. «Gernika bisitatu eta krimen hura The Times egunkarian ezagutarazi zuen». Gerora idatzi zuen *Gernikako arbola* liburuan be bonbardaketaren basakeria gogor salatu zuela aipatu zuen Iturriartek. «Gerraren lehen biktima egia izaten dela esan ohi da, baina Steerrek egia manipulatua izan ez zedin lortu zuen bere lanagaz».

Aurreko urteetan legez, Gernika Sariak be banatu zituzten Lizeo Antzokian; hala, aurten, bakearen eta berradiskidetzearen alde egindako lana aitortu diete Arnaldo Otegi eta Jesus Egiguren politikariei. Otegi preso dagoela eta, aipatu politikarien sariak jasotzen haien alabak izan ziren taula gainean. «Helburu zehatz

## Bakearen alde egindako lanagatik saritu dituzte Egiguren, Otegi eta MST taldea

bat lortzeko asmoz, elkar ulertzeko gai izan dira biak, ideologikoki desberdin pentsatu arren», azaldu zuen Gernika-Lumoko alkate Jose Mari Gorroñok.

Maria Egigurenek –Jesus Egigurenen alabak– adierazitakoaren arabera, «elkarbizitzaren garaia da». Haren esanetan, iraganeko gorrotoa alde batera utzi behar da. Otegiren tartea, ostera, Begoña Landa Gernika-Lumoko zinegotziak aprobetxatu zuen, presoak Logroñoko (Espainia) kartzelatik bidalitako gutun bat irakurriz. «Arduraz beteriko ohore bat da Gernika-Lumoren izena daraman saria jasotzea», zioen Otegik gutunean. Jesus Egigurenen lana be goraipatu zuen. Izan be, haren ustetan, «asko zor dio Euskal Herriak». Era berean, gaur egungo egoerara heltzeko lan egin duten ezker abertzaleko ordezkariak be izan zituen gogoan Otegik.

Nazioarteko saria be banatu zuten, urtero legez. Hain zuzen, Brasilgo MSTk jaso du aurten aipatu saria, lurrik gabeko nekazarien alde egindako lanari aitorpena emonez. Joao Carlos Rodriguez mugimenduko kideak kartzelan dauden eta erail dituzten nekazari guztiak izan zituen gogoan, taula gainera igotzerakoan. Haren berbetan, «lurrik gabeko nekazariek indarrak batzen jarraitu behar dute, sistema kapitalistaren kontra egiteko».

Halaber, Gernika Sarien ekitaldia bakearen aldeko eta gerraren gehiegikerien kontrako hitzarmena sinatzeko be aprobetxatu zuten. Hain zuzen, Nagasakigaz (Japonia) iaz sinatutako akordioa aurten Hiroshimagaz (Japonia), Tsuchisakigaz (Japonia) eta Dresdegaz (Alemania) izenpetu du Gernika-Lumoko Udalak.

riak, Eusko Jaurlaritzakoak... Horiekin batera, bonbardaketan bizirik atera zirenak be izan ziren hilerrian. Gainera, dantzariak, Naica musika taldea eta Jon Lopategi bertsolari muxikarra be izan ziren, besteak beste, oroitzapenagaz bat egin zutenak. Horiek guztiek bonbardaketan zendutakoen omenezko lore eskaintzan eta elizkizunean parte hartu zuten, bakoitzak bere eran.

Euriak barra-barra jarraitzen zuen bitartean, ekintzek be bide berean jarraitzen zuten; etenik barik. Hilerritik herrigunera salto egin zuen oroitzeko tarteak. Hala, Juntetxetik hasi eta Foru plazara ailegatu arte, hainbat izan ziren herritarrek irudikatutako bonbardaketaren une gordinak; hainbat baita, horiek ikusteko bildutako lagunak. Aterkia eskuan, geldi ziren herritarrak, *Gernika sutan* antzezlanari so.

Geldi egoteari utzi, eta herrian barrena mugitzeari ekin zioten herritarrek, gaua heltzeagaz batera. Hala, aterkia esku batean eta kandela bestean, manifestazio isilean abiatu ziren Foru plazatik, bonbardaketaren 76. urteurrenean.

Egitaraua borobiltzeko, zapatuan eta domekan be izan zen jarduera bat edo beste, Loben eskutik. Zapatuan, esaterako, *Tia Luisita* dokumental laburra proiektatu zuten; domekan, ostera, umeei eskainitako *Kukue dator!!!* antzezlanaren bitartez, animalien bidez irudikatu zuten lobek bonbardaketa.




**Lore eskaintza** © Bonbardaketan zendutakoei lore eskaintza. A.A.



**Euskal Brigadak be gogoan** © Askapenak deituta, memoria gal ez dadin, frankismo garaian Asturiesen borrokatu zuten Euskal Brigadak izan dituzte gogoan, bonbardaketaren urteurrenaren harira. 250 eta 300 gudari eta miliziano erail zituztela gogorarazi dute; horietatik erdiak EAE-ANVko militanteak ziren, eta gainerakoak anarkistak eta komunistak. OIHANA CABELLO





MAIER

EZ OHIKO BATZAR NAGUSIA
GAI-ZERRENDA

DEIALDIA
Eguna: 2013ko Maiatzaren 11a.
Ordua: 10:00 lehen deialdia eta 10:30 bigarren
Lekua: Gernikako Jai-Alai

1.- Batzar honetako akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2.- 2012ko maiatzaren 12an egindako Ohiko Batzar Nagusiko akta onartzea.
3.- 2012 ekitaldiko urteko kontuak (Memoria, Balantzea, Emaitzen Kontua, Ondasun Garbian Emandako Aldaketen Egoera eta Esku-dirutako Fluxuen Egoera) eta Kudeaketa Txostenaren aurkezpena eta, hala badagokio, haiek onartzea. Ikuskaritza eta Zaintza Batzordearen Txostenen aurkezpena.
4.- 2012 ekitaldiko Memoria Soziala.
5.- Maier Koop. Elk.eko 2013ko Kudeaketa Planaren Txostena eta, hala badagokio, hau onartzea.
6.- Sozietatearen 2013ko urtarrilaren 1eko balantzea onartzea, 1/2013 Foru Dekretu Araua, otsailaren 5ekoa, balantzeak eguneratzeari buruzkoa, dela eta.
7.- MONDRAGON Korporazioaren eta CM Automozio Dibisioaren bilakaeraren 2012ko txostena. 2012rako aurreikuspenak.
8.- 2012 ekitaldiko soberakinen banaketa eta interesen ordainketa.
9.- Elkartearen Estatutu Sozialen., 14, 22 eta 36 artikuluen aldaketak.
10.- Elkartearen Barne Araudian, 72 artikuluaren aldaketa.
11.- Ekonomia erregimeneko estatutu xedapenak. Nahitaezko Ekarpena eta sarrera-kuota eguneratzea.
12.- Gizarte Kontseiluaren berritze partziala.
13.- Eskari eta Galderak.
14.- 2012an jubilatutako bazkideei omenaldia eta Mikeldi Berezia ematea.

Ekitaldi horiekin batera, EAJk bonbardaketaren garaiko alkate Jose Maria Labauria omendu zuen, haren eskulturari loreak jarrita. EAJk azaldu legez, Labauria eta Agirre lehendakaria izan ziren Bilbo Irratiaren bidez erasoaren erantzuleak nortzuk ziren esan zuten lehenak: «Gernika ez zuten gure gudariek sutu, hondamendia atzerriko hegazkinek eragin zuten».

Bestalde, aurten be lau minutu hartu dituzte gernikarrek aurreko belaunaldiek kontatutakoaz hausnartzeko. Hala, kanpai eta sirena hots artean, gogoeta egitera gonbidatu zituen Kultura Batzordeak Eriabarrenan, San Kristobal plazan eta Errenteriako zubian bildutako herritarrak. Halanda be, leku horietan ez ezik, beste gune batzuetan be egin zuten geldiunea gernikarrek.

Euria ari zuen barikuan, baina eguraldi txarra ez zen oztopo izan Zallo hilerrira joan zirenentzat. Urteroko egiturari jarraituz, hainbat erakundetako ordezkariak izan ziren bertan: Gernika-Lumoko Udaleko ordezkariak, Eusko Legebiltzarreko ordezka-

## Euria ez zen oztopo izan bonbardaketan zendutakoei ohore egiteko



**Gernika Sariak** ○ Arnaldo Otegiren eta Jesus Egigurenen alabek hartu zuten politikarien saria; bakoitzak bere aitari zegokiona. ASIER ALKORTA




**Ahaztuak** ○ *Biktima guztiak, borrokalari guztiak* dinamikaren baitan, Guardia Zibilak 1975eko maiatzaren 15ean tiroz josita eraildako Blanca Salegi eta Iñaki Garai omendu zituen Ahaztuak 1936-1977 elkarteak zapatuan, Zallo hilerrian egindako ekitaldi xume batean. Erregimen frankistaren aurka borrokatu ziren gainontzeko lagun guztiek legez, Gernika-Lumoko senar-emazteek be gogoratuak eta omenduak izateko eskubidea daukatela esan zuen aipatu elkarteko kide Martxelo Alvarezek bonbardaketaren urteurrenaren harira egindako omenaldian. MAITE ORUE BENGOA






**George Steer** ○ Gernika-Lumoko bonbardaketaren barri emon